

IKUS-ENTZUNEZKOETAN ETA ARTE ESZENIKOETAN ESPEZIALIZATUTAKO MAKILLAJE-IKASTAROA

Gero eta gehiago dira euren proiektuetarako kalitatezko prestakuntza duten makillatzaileak behar dituzten ikus-entzunezkoak. SOLERBMAK estudioak ikasketa-plan espezializatua eskaintzen dizu, ikus-entzunezkoetan espezializatutako makillatzaile izan zaitezen: Telebistan, Zineman, Musikaletan, Dantzan, Modan espezializatua. Aukera paregabea lanbide zoragarria benetan ezagutzeko, gure eskutik eta modu pertsonalizatuan, trinkoan, praktikoan eta atseginean.

Norentzat?

Lanbide honetan JARDUN nahi dutenentzat: makillatzaile Telebistan, Zineman, Musikaletan, Dantzan, Modan.

Zer ikasiko duzu?

Edozein ikus-entzunezkoetako makillaje-departamentuan lan egiteko ezinbestekoak diren ezagutzak irakatsiko dizkizugu. Telebista-platoetan, filmaketetan, pasareletan, modan edo argazkilaritzan erabiltzeko teknikak ikasiko dituzu, eta, horrekin batera, filmaketa edo grabazio batean makillajearen arloa prestatzeko, koordinatzeko eta horren jarraipena egiteko alderdi tekniko guztiei aurre egiten.

Nola?

Errealitatea eta praktika dira gure eskolaren oinarria. SOLERBMAK estudioko taldeak egindako benetako lanen bidez ikusiko duzu nola sortzen den ikus-entzunezko bakoitzerako makillajea. Oinarritik hasita, lan horiek xehetasunez aztertuko ditugu eta, gero, zure ondoan egongo gara eta ikasitakoa gauzatzen lagunduko dizugu. Metodologia pertsonalizatua, atsegina eta benetako esperientzietan oinarritutakoa eskaintzen dizugu.

METODOLOGIA PERTSONALIZATUA, ATSEGINA ETA BENETAKO ESPERIENTZIETAN OINARRITUTAKOA ESKAINTZEN DIZUGU.

Programa

PLATORako MAKILLAJEA

- Makillajea telebistan.
- Aurkezleen makillajea.
- Entretanimenduzko saioetarako makillajea.
- Platoko ile-apainketako lana.
- Makillajeko eta ile-apainketako departamendua: antolaketa eta funtzionamendua.

FILMAKETAK, TELESAILAK ETA BESTE ARTE ESZENIKO BATZUK:

- Nola heldu pertsonaia baten makillajea sortzeko lanari.
- Garaian garaiko makillajea.
- Agertokiko makillajea: antzerkia, opera eta dantza.
- Ile-eranskingintzako eta ile-apainketako lana.
- TGidoiaren arabera lan egiteko teknikak: dokumentazioa, banakapenak, eskaletak, recorda.

MODAKO ETA PUBLIZITATEKO MAKILLAJEA.

- Modeloak eta argazkilaritza.

Zer gehiago jakin nahi duzu?

- Ikastaroaren zuzendaria: Amaia Soler (EITBko Makillajeko eta Ile-apainketako arduraduna. Miramon).
- 230 ordu 10 astetan (datak eta ordutegiak zehazteke).
- Gehienez 4 ikasle ikastaro bakoitzeko.
- Praktikak: 40 ordu baino gehiago ikastaroan zehar, telebista-estudioetan, filmaketetan edo argazki-saioetan.
- Ikastaro-amaierako argazki-proiektua.
- Lekua: SOLERBMAK makillaje-estudioa. Elkano kalea 6, behea. 20004 Donostia.